

FUENGIROLARA BIDAIA

2022KO UZTAILAK 17-24


EGITARAUUA

IRAILAK 17. - BILBO – MALAGA - FUENGIROLA (ME)

Aurrez hitzartutako orduan, irteera 11:10ean Malagara doan hegaldian. 12:45ean iritsi eta Fuengirolara bidaia. Hotelera iristea, logelen banaketa. Bazkaria, afaria eta ostatua

IRAILAK 18. - FUENGIROLA (MO)

Egun librea hondartzaz gozatzeko edo paseo polit bat emateko.



IRAILAK 19. – FUENGIROLA (MO) (MARBELLA – PUERTO BANUS)

Gosaria. Egun erdiko bisita egingo dugu bertako turismo-gidariarekin Marbella eta Puerto Banusera.



Marbella harrigarria da Andaluziako beste herri batzuk bezain herri zuri zaindua eta polita delako. Bisitaren ardatza plaza eta kale politetan zehar ibiltzea da, **Los Naranjos plazara** iritsi arte. Plazak giro handia du eta terrazadun tabernaz eta, jakina, izena ematen dioten laranjondoak beteta dago.

Ondoren, **Puerto Banusera** joango gara, luxu pixka bat arnasteko, yate harrigarriak ikusteko eta paseo bat emateko.

Hotelera itzuliko gara

bazkaltzera. Arratsalde librea.

Afaria eta ostatua.



IRAILAK 20. - FUENGIROLA (MO)

Egun librea mantenu osoko erregimenean



IRAILAK 21. - FUENGIROLA (MO) (MIJAS)

Gosaria hotelean. Goizean zehar **Mijas** herrira bisita egingo dugu bertako turismo-gidariarekin.

Etxe zuriz osatutako herri eder hau ezagutuko dugu, loreak ikusiko ditugu txoko guztietan eta baita astoak ere garraiobide gisa.

Herri honek antzinako erritmo pausatuari eta xarmari eusten dio, mendizerraren babespean, landari eta itsasoari begira.



IRAILAK 22. - FUENGIROLA (MO) (MALAGA)

Gosaria hotelean. Goizean zehar **Malagako hiriburua** bisitatuko dugu. Ibilbide bat egingo dugu autobusez, hiriko tokirik enblematikoenak bisitatzeko, eta kalerik komertzialenean amaituko dugu bidaia. **Larios kalea**.



PIC-NIC motako bazkaria.

Arratsaldean **Picasso Museora** bisita. Picasso Málaga Museoa Pablo Picassori bere jaioterrian eskainitako bi pinakoteketako bat da.

Pablo Picasso margolari gisa ezagunagoa da, baina XX. mendeko eskultore handiena eta grabatzaile onena ere izan zen.

44 pintura, 49 marrazki, 40 lan grafiko, 10 eskultura, 17 zeramika, tapiz bat eta linoleozko xafla bat daude bertan.

Hotelera itzuliko gara, afaria eta ostatua.

IRAILAK 23. - FUENGIROLA (MO)

Egun librea mantenu osoko erregimenean



IRAILAK 24. - FUENGIROLA (OG) FUENGIROLA – MALAGA - BILBO

Gosaria. Hitzartutako orduan, aireportura joatea, 13: 25ean Bilborako hegazkina hartzeko.

14:55ean iristea **eta BIDAIAREN AMAIERA**

PREZIOAREN BARRUAN SARTZEN DIRA:

- Bilbao – Málaga - Bilbao hegaldia
- Autobus egokituan Malagara heltzea eta Malagatik irtetea (gurpil-aulkientzako 6 plaza dituen autobusa)
- Egonaldia Ilunion Fuengirola Hotelean****.
- 8 logela irisgarri bikoitz, gainerakoak (bainuontzidun gela).
- Programan adierazitako erregimena. Ura bazkari eta afarietan
- Egun erdiko txangoa Mijasera bertako turismo-gidariarekin.
- Egun erdiko txangoa Marbellara – Puerto Banusera, bertako turismo-gidariarekin.
- Egun osoko txangoa Malagara, eta bertako turismo-gidaria egun erdian zehar.
- Malagako Picasso Museorako sarrera
- Agentziako laguntzailea bidaiari zehar.
- Bidaiako laguntza-asegurua eta baliogabetze-asegurua

EZ DIRA PREZIOAREN BARNEAN SARTZEN:

- Ostatu-tasak.
- Hoteleko estrak.
- “Prezioaren barruan sartzen dira” atalean zehazten ez diren zerbitzuak

*Ilunion Fuengirola Hotela*****

*P.º Marítimo Rey de España, 87
29640 Fuengirola, Málaga
Telefona: 952 92 10 00*

Diseinuzko hotel hau Fuengirolako itsas pasealekuan dago, Los Boliches hondartzara begira. Ilunion Fuengirolak doako WiFia eta urte-sasoiko kanpoko igerilekua eskaintzen ditu Mediterraneo itsasoaren ikuspegi panoramikoekin.

Ilunion Fuengirola Hotela Los Bolicheseko tren geltokitik 300 metrora dago. Handik tren zuzenak ateratzen dira 20 km-ra dagoen Malagako aireportura.

Logelek satellite bidezko telebista, aire girotua eta edaritegia dituzte. Logelek berogailua eta bainugela pribatua ere badute, ile-lehorgailuarekin eta garbitzeko gauzekin. Gehienek balkoia dute.

Ilunion Fuengirola jatetxeak askotariko gosaria eskaintzen du egunero. Igerilekuaren ondoan kafetegi bat dago itsasora begira.

Hotel hau erabat egokituta dago desgaitasuna duten pertsonentzat. Eskatuz gero, ikusmen- edo entzumen-degaitasuna duten pertsonentzat egokitutako gelak eskaintzen dira, baita gupil-aulkientzat egokitutako gelak ere.

Hoteleko harrera-lekua eguneko 24 orduetan dago zabalik. Fuengirolako erdigunea 10 minutura dago oinez.







fekor

